

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2588

18/2021 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko kideak berritzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 5. artikulua ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da sindikatuen erakunde eta konfederazioek eta enpresen konfederazioek kontseilu horretan dituzten kideak izendatzea, erakunde horiek beren ordezkariak aukeratu ondoren; bestalde, lege horren 6. artikulua arabera, kontseiluko kideen agintaldia bi urterako izango da, baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Agintaldia bi urtekoa izan arren, otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 6.2 artikulua aukera ematen die sindikatuen erakunde eta konfederazioei eta enpresen konfederazioei aukeratu dituzten kide titular edo ordezkoak aldatzeko.

Aipatutako lege-gaikuntzarekin bat etorritz, Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT) sindikatuak lehendakariaren martxoaren 29ko 11/2019 Dekretuaren bidez izendatutako bi pertsona aldatu ditu, eta bere ordezkoak izendatzea erabaki du.

Horren ondorioz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Tomás Roderó Briongos jauna Lan Harremanen Kontseiluko kide titular izendatzea, Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT) erakunde sindikalak aukeratu ondoren, Maribel Ballesteros Martínez andrearen ordezkari.

2. artikulua.– Gorka Sánchez García jauna Lan Harremanen Kontseiluko ordezkari kide izendatzea, Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT) erakunde sindikalak aukeratu ondoren, Esperanza morales Quicios andrearen ordezkari.

3. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.